

Liburuak eta idazleak protagonista izan dira

Liburuaren Nazioarteko Egunari lotuta, hainbat ekitaldi egin dira; gaur ere jarraipena edukiko dute.

EIDER MUGARTEGI

Ekitaldi bereziak egin ziren atzo, Nazioarteko Liburuaren Eguna ospatzeko. Besteak beste, ipuin kontalariak izan zituzten Mutrikun, Haur Literatura Aretoan parte hartu zuten Lekeition, idazle eta ilustratzaile gustukoenak aukeratu zituzten Ondarroan eta, beste gauza batzuen artean, klabelinak eta gozokiak jaso zituzten Markina-Xemeingo Herri Bibliotekatik pasatu zirenek.

Poz-pozik bozkatu zuten Zubi Zahar Ikastolako ikasleek gustukoen dituzten idazle eta ilustratzaileak. Lehen Hezkuntzakoek bozketa zuzena egin zuten papera hautestontzian sartuta; DBHkoek, berriz, Interneten bidez bozkatu zuten. Lehen Hezkuntzako boto denak batuta, ikastolako ikasleen gogokoenak hauek izan dira: txikienen artean, Angelica Glitzen Munstro bat ohe azpian; 1. eta 2. mailetan, Antton Irustaren Athletic Geuria; 3 eta 4. mailetan, Koldo Izagirreraren Antton Kaiku; eta 5. eta 6. mailetan, Angel Lertxundiren Musu bero mon amour. Ilustratzaileei dagokienez, ez zuten zalantzarik izan, Kaiet Bengoetxea zaleak dira.

Bozketa eginda, Nafarroako Ikastolen Elkartera bidali zituzten datuak, eta gaur jakingo dute Euskal Herri osoan zein izan den ipuinik bozkatuena.

Solasaldian Zubizarretagaz

Txiki eta gazteez gainera, nagusiak ere liburuaren inguruan batu ziren Markina-Xemeinen. Club de Lectura eta Irakurleen Txokoko parte-hartzaileek saio berezia eduki zuten atzo. Patxi Zubizarreta idazlea izan zuten gonbidatu, eta beragaz solasean jardun zuten. Txokokoez gainera, atzo bibliotekara joan zirenek ere oparia izan zuten.

Gaur ere Liburuaren Egunagaz lotutako ekitaldiak egongo dira. Lekeitioko Azkue aretoan Nik egin beharko ikuskizuna emango dute 19:00etan, eta Markina-Xemeingo Uhagon kulturgunean Markinaldeko berba eta esaera xelebreak liburuak aurkeztuko dute ordu berean. Gauean, berriz, munduko kontu kontalariak nagusientzako saioa egongo da, 22:00etan hasita.